



# ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA


IV Urtea

1922k'o

Agofa

45 Zenbakia

## Prantzisko Xabier Saindua



B

Al al dakizu, irakurle maitea, Napaño guztian ta batez ere onen uri-buruan, Iruña'n, jai aundiak ta ospatsuak egiten ari dirala urte oso onetan Xabier'taf Prantzisko Sainduaren omenaz?

Prantzisko Xabier izan da zalantzik gabe, Napañoak mendeen mendetan izan dituen semetatik argiena ta bikaiñena; ofegatik guztiz edefki irabaziak ditu jai auk.

Gu ere pozik batutzen gera jai atsegingafi ori geitu nai ez, al ba-giñezake. Argatik gure efitaf maitagafi oni eskeintzen diogu Zeruko Argia'ren zenbaki au.

*Xabier'taf Prantzisko'ren ama ta onen jauregia.*

Xabier Sainduaren amak, Aznarez ta Azpilkueta'f Maria zuan izena; oso aberatsa zan eta bere eskuan zituen Azpilkueta ta Xabier'ko eri ta jauregiak. Kondairagileak diotenez, Baztandaña zan, Baztan'etik zetoñen sendi (famili) andikien baten alaba. Gaur berean Baztan'go eri batean dago Txabeñi Sainduaren amaren jauregia. Azpilkueta'n, *Urasun* deritzaion auzoan (bafidean), jauregi eder bat arkitzen da *Jauregi arastoa* deitzen dutena, ta ura dala diote Amayur'koak Xabier'en ama bizi izan zen jauregia. (1) Baño Azpilkueta'fak uste dute ango *Doreberia* dagon tokian egon zala.

Azpilkueta'f Maria Napañoako beste gazte aberats ta aundiki bate-

(1) Y'k. Aita Eskalada: *Xabeñi Sainduaren amaren jauregia Baztan'en* (B. C. M. H. A. de Navarra; XIII'gn t., 49'gn. zbk; 26'gn. of.)

kin, Jatsu'taŕ Juan Irakasle zeritzaionakin ezkondu zan eta sei seme-alaba izan zituen: «iru seme, Migel (Xabier'ko Jauna), Juan (Gudalari burua), Prantzisko (Saindua) eta iru alaba, Madalen, Biolante ta Ana.» (1)

*Prantzisko Xabier.*

izan zan seme-alaba guzti oetatik ospetsuena ta nabarmena. 1506'gn urtean jaio zan Zangoza (Sanguesa) ondoan dagon Xabier'ko gazteluan eta antxe bertan igaro zituan aurtzaroako urteak. «Aitak eta amak bereziki maite zuten Prantzisko Xabier, beste seme-alabak bañõ samurkiago, etxeko gazteen baizan... Bere anaiek eragin zioten gudulari izateko; beraiek bezala; Xabier'ek ordea beste gogoetak eta beste naiak zerabilzkie bere biotzean: apaiz izatea edo nai zuen.» (2) Bederatzi urte zituelarik, aita il zitzaion eta bere ama ta anai-arebakin bakarik gelditu zan.

1525'gn. urtean, emeretzi urteko gazte yayoa, Paris'era joan zan, bere ikasteak osotzeko eta irakasle mäl irabazteko. Emen Paris'en beste euskaldun ospetsu bat arkitu zuen, santu aundi bat egiñik zegoen Loiola'ko Iñazio, eta onek erakutsi zion argi ta garbi, mundu onetako gauzak eztirala ezer; guztiak ordea igarokofak ta galkofak dirala.

Prantzisko Xabier gazteak biotz onez ta gogo beroz agur egin zion munduari, Iñaziok sortu nai zuan Jesus'en Lagundi berean sartu zan eta 1540' gafen urtean Indietarontz jo zuen, urutiko efi aietan egiaren argia zabaltzeko ta fedegabeen gogo gaxoak ainbat lasteren Jaungoikoaganatzeko.

Irakurle maitea, aufera ta aufera jafarikiko nintzaioke Prantzisko Xabier'eri itxasoan Indietan eta abar baña luzetxo egingo ote naizen bildur naiz-ta, lau itz esango dizkitzut ortaz igari dezazun egin zuan lan arigafia.

Bere aruntz onuntza guziak ez dizkitzut esango bañõ bai nai dizut esan amar urteren buruan egon zala aufera Indietan, Goan, gero Komorin'en, Ozeanian, Japon'en eta azkenean Txinan. Asko eun mäl gizaki elizaren besoetara ekari zituala ta sei efidi aundi Jaungoiko egiazko'aren ezagurara.

1552'gn. urtean, berogei ta sei urte zituelarik il zan Prantzisko Xabier eta il-ondoaan asko mirari egin zituan Jaungoikoak gure Sainduaren bi-tartez.

*Xabier Sainduaren besoa.*

Irurogei ta bi urte geroago, (1614'ean), Jesus'en Lagundiko buru nagusia zan Klaudio Aquaviva'k eskatu zuan Indierara Prantzisko Xabier'en gorpuzki (efelikia) bat; idiki zuen eortzia zegoen ilobia; asi ziran eskuiko besoa mozten. (3) Baña alperik: idazle batzuek diotenez, iru aldiz asi ziran ta iru aldiz utzi izan beaf zuten. izugafizko lur-ikara egin zalako aldi bakoitzean. Orduan Aita Nagusiak esan zion gorputz-ilari: «Obedientziaz agin-

(1) A. Campion: *La Familia de S. Francisco de Xabier*. 14'gr. of. Iruña'n 1922'gn. urtean.

(2) A. L. I. M. Cross: *Saint François de Xavier: Sa vie et ses lettres*. 1.º t. n5'gn. of.

(3) Aita Cros: *Saint François de Xavier: Son Pays, Sa Famille, Sa Vie*. 514'grén. of.

tzen dizut, uzteko zere esku-besoak moztan.» Au esan ta, bereala ebaki al izan zioten ta gero Efomara ekañi zuten.

Orain befiz Naparo'ko Aldundi'ak (Diputazioak) Efoma'tik eskatu ta



**Xabie'tar Prantzisko deuna**

onera Napañoa bertara ekañi du ainbeste eri Jaungoikoarentzat irabazi zituan beso saildua.

Ez bedi Napañ bat ere gelditu beso saildu ori ikusi ta agur egin gabe; eta Prantzisko Xabier'ek ordañez zaindu ta begira beza beti-betikotz goizerutik gure ta bere Naparo maiteaz.

*Yur'e'tar Julian. O. M. Cap.*



# OTOITZA NOLA EGIN

*Prope est Dominus omnibus invocantibus... in veritate* (Ps. 144-18.)

*Bertan dago Jauna egiz deitzen diotenengandik.*



UREKO bi ilabetetan ikusirik, lenengoan otoitza zer, ta zenbat motetakoa dan, eta ufengoan ondasuntsu ta bea-fezkoa dala guretzat, gaur beař dizut adirazi nola egin beař dugun.

Eta oar bat nai dizuet egin gure irakurle maite oriei. Gaurtik asiko natzaitzue erakuspen auek «*Bitoria'ko Eliz Barutirako*» egin duten *Kristau Ikasbidea*ren ariora ematen; bertatik artzen ditudan galde-erantzunpenak (B. K. I.) itzakin bukatuz.

G. *Otoitza nola egin beař da?*

E. *Aretaz, apal, uste osoz, iraunkorkiro egin beař da otoitza.* (B. K. I.)

## Otoitza egin beař dugu ařetaz.

*Esan nai du egin beař degula kontuz; oarturik ari geranari; gogo ta biotz bilduarekin.* Elizak Kristau Ikaspidean esaten digu, Elizan sartzean *Aitare*n egiteko; gurutzearen bidez gure gogo ta buruak gogorapen gaizto edo txafetatik elizan gauden artean gordetzeagatik. Asmo berarekin elizako sařera guzietan ur-bedeinkatu ontzia ipiñirik dauka. Onela guk gurutze ta ur-bedeinkatuz otoitza galaraziko liguteken gogorazio edo gogorapen eta eřsaiaren zirikaldi guziak garaitzeko indařa artzen dugu.

Jaunak berak agintzen bai digu: otoitzara bařo len, prestatu edo gertu zazu zure gogoa ta ez izan Jaungoikoa zirikatzen duana bezala. (Eccli. XVIII-23.)

Galtze-irabazien gora-berak ikusten ari dan sal-erosleari ez ordu artan beste kontuekin joan. Ezta eřegeari eskaera bat egiteko orduari begira dagoanari ere, ez bestelako beřiketakin joan. Galtze irabazien gora-berak ikusten ari danak eta eřegeari bereala itz egin beař dionak ba-dauka naiko zer egiņa esku artean daukanarekin. Galtze-irabazien ikustzařlea da ordea gogozko otoitzean ari dana. Eřegen eřegearekin itzegitera dijoana da beřiz agozko otoitzera dijoana. Argatik batek eta besteak ere beren egiteko ortan zabartzen dituan guzia kalte dute. Beren ardura edo kontu guztia ari diran artan beař dute; on zaizkien kontuak ondo ateratzeko ta Zeruko Eřegeari on dan bezala itzegiten asmatzeko. Lotsagafi da edozeņetzat – zion gure Aita Asistafařak—jolas gogoraziotan zabartzea, otoitz artean Eřege aundiari itz egiten diogunean.» Ontarako, otoitza ondo egiteko, toki egokia aukeratu,

gorputzaren egonera itxura guziz onekoan eta zentzu ta oarmen guziak ondo bildurik asi: Zabartasunik gabe egiteko, Jaungoiko zuri entzunez dagoanaren sinismena biztu ta erne egon zabarkeri guziei lenengotik atea ixteko.

### **Otoitza izan bea da "apala".**

Esan nai du umila; ume il, bildurti, eskaera egiteko uzku-uzku, begiak jasotzeko bildu-uz dagoanaren antzean egiña.

Iñork eraman ez dezaken gauza da, beartsuaren afokeria. Afokeria edozeinetan txarto edo gaizki ematen duan gauza da, baño eskale, beartsu, Jaungoikoaren izeneko batean, edozein nazkatu ta asafeazten duan gauza da. Begietan ematen digu burua afo, bekoki edo kopeta goi, begiratu zofotz eta aginduz bezala iñor eskera otortzeak. «Ori ezta eskatzeko era» esaten dugu.

Jaun aundi batekin itzegitera dijoana uzku joaten da ta zenbat eta jaun ori andiagoa dan orduan eta uzku-uzku.

Jaun ezin aundiagoko batekin itzegitera dijoana da otoitza dijoana; baño gañera beartsu; eskale, Jaun aundi ofen atetara dijoana da gizona. Ea bada otoitza egitera goazenean egoki izango ote litzeke Ebanjelioko Fariseo afoaren antzean Jaungoikoari itzegitera joatea? (Luc. XVIII-11.) Zenbat ede-razo da biziera gaiztokoaren ototz egiteko era. Elizako atari ondotik auferatzeko bildu-uz dago, ez du biotzik begirik lufetik jasotzeko, bere bularak ukabilka jotzen ditu, nega-uz bi begiak bustirik eta esanez: Jaungoikoa, efuki zaitez pekatari ontaz. (Luc. XVIII-13).

Au da Jaungoikoak entzuten duan otoitza «Jaungoikoak afoai gogor egi-ten diote ta apal edo umeila ematen diote eskefa, au da grazia.» (Jac. IV-6).

«Bere burua uzku-uzten duanaren ototzak igaroko ditu odeiak: Jaungoikoa arte ez da poztuko: eta Goiengoak beregana begiak itzuli arte ez da atzeratuko. (Eccli. 35-21). Eta Dabid'ek zion: beti begiratu dio apal edo umilen ototzari ta aien eskaera entzun izan du. (Ps. 101-18.) «Bere neska- toaren apaltasunari begiratu dialako, gaurtik auferako gizadi guziak zorionekoa deituko naute, zion Ama-Birjina. (Luc. I-48).

Jaungoikoari itzegiteko ta ezer eskatzeko daukagun esku laburra eza guturik, Jesus'en izenean, au da Jaungoiko Aitarekin iñork ez bezalako samera daukan bere Semearen izenean: bea ditugu egin gure eskaera guziak. Ototz oni itz eman dio Jesus berak: Zerpait eskatzen ba-diozue, nere Aitari, nere izenean emango dizue. (Joan. XVI-23.) Baño artarako

### **Gure otoitza izan bea du uste osoz egiña.**

Au da eskatu bea degu etsirik gure onerako eskatzen dioguna ez digula inola ere ukatuko. Jaungoikoaren efukitasuna ondargabea ta baztargabea dalako ta Jesus'ek agindu digulako, eskatzen duguna irixteko uste osoan bea dugu eskatu.

«Eskatu ta emango zaizue, bilatu ta upatuko duzue, ots-egin eta idikiko zaizue. Eskatzen duak, upatzen du; eta otsegingo duanari idikiko zaio. Zuen artean aften batek ogia eskatzen ba-dio bere aitari, emango al dio aña? Edo añaia eskatzen ba-dio karamafoa emango ote dio? Et zuek gaiztoak izanik, gauza onak zuen umeai ematen ba-dakizue, jzenbatez geiago

zuen zeruetan dagoan Aitak emango diote gogo ona berari eskatzen diotenei! (Luc. XI-9 eta.)

Eskatzen dioguna, gure onerako ba-da, emango digulako uste itxutxuan eskatua nai du ba-da.

Eta ez dugu berantetsi bea, eskatzen duguna nai bezin agudo ez ba-zaigu ematen edo berdin dana

### **Iraunkorkiro egin bea da otoitza.**

Gizonen artean gauza bat eskatu ala ez ba-zaigu ematen, bereala esan oi dugu: alperik da eskatzea, lenengoan eman ez digun ezkerro. Baño beste-la da Jaungoikoari egiten dizkiogun eskaeraetan.

Eskeka ixildu gabe irauteagatik adiskideagandik ogiak eta juez gaiztoagandik on zan erebakia atera zituenen adizpidez nai du Jesus'ek erakutsi eskatzeaz ez aspertzen. (Luc. XI-58—XVIII-2-5).

Kanaan'da emakumeak alabaren osasuna eskatzean, Jesus'ek ari ez entzuna egiten zuan, gero gogor erantzun zion, baño alare emakumeak alako siñismenaz: eskatzen ziola ekustean, esan zion: o andrea, audia da zure siñismena, egin bedi nai dezun bezala. Eta ordu berean sendaturik gelditu zan afen alaba. (Mat. XV-22 eta.)

Egunero eskatzen zion Monika deunak Jaunari bere semea ontzeko, ta ala ere gero ta gaiztogoia zan; baño emezortzi urtez otoitz ortan iraun ondoan, Jaunak ondu zion semea ta santu aundi-aundi bat egin zuan.

Bea dugu ba eskatu ta eskatu beti, ez aspertu eskatzeaz ta ez berantetsi eskatua.

Onela egindako otoitz biotzeko, apal, uste osoan eta aspertu gabe egiña, atsegin zaio Jaunari ta ondasun guzien agortzen ez dan itufia da.

*Intza'r Damaso An. O. M. Cap.*



# Xabier'tar Prantzisko Deunaren Eunurtea

## Agoferako Jayak

### S. Prantziskoren besoa ta gurutzea

Xabier'tar Prantzisko deunaren Jayak zuzentzen ari dan Batzordeak datoñen agoferako gauza edefak erabaki ditu. Bere besoa ta gurutze santua Napañako efi asko bañena ibiliko dituzte.

II ofen 17'an Xabier'tik Lizafa'ra (Estella) eramango dituzte, bideko eri batzuetan ere geldituz. Lizafa'n bi egunez egongo dira, Viana'n egun batez ta beñiz Sanguesa bañena Xabier'era itzuliko dituzte.

II'aren 23'an peregrinazio aundi bat egingo da Xabier'era.

Joango dira: Alfonso XIII Eñekea, Napañako Diputazioa, Napañako Eñburuak; Aita Santuaren ordezkoa; Burgos'ko, Zaragoza ta Sevillako Arzobispo Jaunak; Iruña, Jaca, Huesca, Tarazona, Calahorra, Vitoria ta Oviedo'ko Obispo Jaunak; Bayona'ko Obispo Jauna; Duque de Lema bere etxekoakin; Araba, Guipuzkoa ta Bizkayako diputazioen ordezkook ta Napaña guztiko Alkate ta Apaiz-aitak.

Meza nagusia Xabier'ko ikastolako plazan izango da.

23'an atsaldian, guztiok beñiz S. Prantziskoren besoa ta gurutzeari lagunduz Iruñara itzuliko dira.

Uñengo egunean 24'an Iruñan prozesio edef bat egingo da. Eñekea ere gelituko omen da ortarako. Aralaf'tik Miguel Goiaingeru Santuaren Irudia, ekañiko omen dute prozesio ortarako.


25'an besoa ta S. Prantziskoren gurutzea agiriak egongo dira Iruñar guztientzat.

26'an Iruñako konbentu guztietara eramango dituzte ta atsaldean Baztan aldera joango dira lenengo geldi aldia Elizondon egiteko. Of bi egunez gordeko dituzte ta 29'an inguruko eñi guztiak elizkizun edef bat egingo omen dute Elizondo'n.

30'an S. Juan de Pie de Puerto'ra eramango ditu Bayonako Obispo Jaunak, ta gero beñiz Irundi'k bañena ekañiko dituzte Bañanka, Olite ta Tudela'ri ikustaldia egitera.

Azkenian Burgos'ko kardenal Arzobispo Jaunak artuko ditu.

Agoñako 20, 21 ta 22'an Iruñan Misioetako Batzar Nagusi bat egingo da. Aita Santuaren Ordezko Tedeschini Jaunak asko goratu du ta bere bedeinkazioa biali dio olako lan edefari.



Xabier deunaren besoa



# EKATORE AUNDI BAT



Donosti'af J. A'k. bildua.


Almandoz'taf Norb. ereskidetua.

Be - ka - to - re an - di - bat Jain-


ko gu - ziz o - na da - muz on - do be - te - rik - el-

*Cresc*  
du da zu ga - na er - di - tu - rik bi - o - tza sa-

*f*




mi ñik mi - ñe - nak — es - ka - tzen di tu o - juz zu



re bar - ka - me - nak.

Bekatore aundi bat  
Jainko guziz ona  
damuz ondo beterik  
eldu da zugana;  
erditurik biotza  
samitnik miñenak  
eskatzen ditu ojuz  
zure barkamenak.



Ni naiz gurutze ortan  
josi zaitudana  
ni iltzea or bertan  
merezi nuana  
gaurtik zu maitatzea  
da nik nai dedana  
bizitz onen ondotik  
ega nain zugana.

Oñetik bururaño  
pekatuz loitua  
beti izan naiz, Jesus,  
esker gaiztokua  
baña gaurtik zugana  
oso biurtua  
zuretzat biziko naiz  
eskereztu urtua.



# Artzaiarena

Atoř, aiskide, atoř nigonontz, mendira:  
atoř txoria joan oi-dan lez, kabira.

Zumardi itzaltsu baten an zeukat txabo-  
eskuz neonek eraldutako kaiola. [la,

¡Kaiola! Baña kaiola burni gabea  
txoriarentzat oi-dan bezela ortzea.

Atoř mendian urtu dek-eta eluřa  
ta udabefia elduta poztu dek luřa.

Txabol-auřean abes-zegitek txoriak  
ta josi dituk lore bikañez mendiak.

Uřunka asi dek bere kabian usoa  
ta abesten epeř, ufetxindoř ta zozoa.

Atoř, ba, bizi nai ba-dek azke ta lasai  
Goiko Jaunaren bakañik bilduř eta alai.

¿Bai ote-dakik zer dan bařengo alaia?  
¿Nun oř nabaitu loretxu ořen usaia?

Agian safi ezpain gañetan bai pařa  
ta biotz-bařu-bařuan beřiz negařa.

Emen kerizpe atsegingaři onetan  
ařkituko dek, mutil, zoruna benetan.

Safi eldu dek mendira zorun-txoria  
utzirik Zeru goi-goiko bere kabia.

Atoř eořek ikusiko dek agian  
egan, artzaiak jolas-dagiten aldian.

Maiz jařiko dek gure txabolan auřean  
bere egal zuri-azpian sařtu gaitean.

Atoř, mendira, niganontz, ba, atoř, mu-  
ara oř zaukat iretzat artzai makila. [tiła

Txabolan naiko esne ta talo beroa,  
nai aña ardiki, gazta, ogia ta ardoa.

Gertu ituřia muř-muř-dagila dijoa  
garbi ta otza eluřa bera lakoa.

Artzaiak egin dizketek txistu beřiak:  
ire zai artzai, artzañora eta ardiak.

Ařatsaldetan řemengo iřintzi řeresak!  
Emen beteko dituk ire uste ta ametsak.

Atoř, ba, artzaia, lenbailen, atoř, men-  
atoř txoria joan oi dan lez kabira. [dira

Artzaia aiz i-ta, odolez artzai jatořa:  
ez dek iretzat eřiko zulo malkořa.

*Jauregi'tař K.*

(Abes-égin=abestu=kantatu)  
(Ortzea=Zerua=firmamento)  
(Zoruna=zoriondasuna.)



## Jesus'ek Eukaristia agintzen du

Panis quem ego dabo, caro  
mea est. (Jo. VI-51.)

Emango diezueten ogia, nere  
aragia da.



I urte zeramazkien zeruko argia uri, eñi ta baztar guzietan zabaltzen ari zala; baño Eukaristiaz, gai zail ontaz itzik ere etzuen oraindik egin: buru gogofegiak zituen entzunleak orlakorik siñistatzeko. Irugafen aldiz Pazko egun aundia bazetorkion; laugafenean beñiz, andik urte batera, egin beaf zuen mirari guzietatik aundien ori: argatik bere Ebanjelioaren egi-buru guziak erakusteagatik, eta bere entzunleen goguak prestatzeko, urte bat aufetik

agindu zien gero egin *beaf zuena*.

Baño mirari ori denetan aundiena ta egi au garatz-garatz izango zirelako, eñaxago siñistarazteko egiten du orain Eukaristiarekin antzik geiena daukan miraria.

Askotan bezala jende-talde izugaria bildu zitzaion: bost mila gutxienez ba-ziren Jesus'ekin zeudenak: batzuk urutitik etofiak biderako jana saskitan zekartela; gañerakoak beñiz naiz inguru aietakoak, iru egun bazeramazkiten afen ondoan; denak ase gabe zeuden bere itz jakintsuak entzuten, bere mirariak ikusten; baño akitu ziren etxeetatik jateko eramandakoak.

Gazte batek bakañik denen artean ba ziñun bost ogi ta bi afaitxo; baño Andres'ek Jesus'i esan zion bezala: «*Quid sunt inter tantos?*» auekin zer denentzako...? orduan efukiturik Jesus aien gose eta auleriz, jafierazi ziñun guziak belardi edef artan; gazte ura deitu zun bere aufera; eta bat banaka artuz bere eskutan ogi aiek, begiak zerura begira zitula, biotz biotzetik beñiz bere Aitari eskef bero-beroa zeriola eman zion eskubideagatik eta ixil-ixilto bere mingañak ziola «*Multiplcamini*»=geitu zaitezte, guziei emateko bost aietatatik, agindu zien Apostoluei; berau bi afaitxo aiekin egin zuen. ¡Eta ura gauza! bost ogi aiekin indartu ziran aulak, ase egin ziran bost mila aiek! Eta ogi ura goxo-goxoa izan afen, naiko puska utzi zuten «amabi» saski betetzeko.

Zer gertatuko zan zion aiekin onelako miraria ikusteakin susmatu deza-kegu danok: Ebanjelioak dionez, bereala agoz-ago bañatu zuten noski Jesus Mesias zala; eta goguan sartu zitzaien efegetako jaso beaf zutela bera Jerusalem. Baño Jesus'ek mar-mar ura entzutean ta bañeneko gogo aiek azaltzean (ikustean) «*Fugit iterum in montem ipse solus*» mendi aldera jo zu-

en bakar bakartxo... Efege-koroik etzun nai; etzan ortara mundura etofi, ta mirariak etzitun artarako egiten.

Judu aien begiak argitu nai zitun piskeka-piskeka; eta onen mirari aundiakin agertu nai izan zien bere biotzaren ontasun eta zabaltasuna; bere eskubidearen jainkotasuna; nola borondateak egin zezakean nai zun guztia. Onela prestatzen ziren siñistatzeko egun gutxien bafuan esan eta agindu beař zitunak: ogi aiekin egin zuena bere gorputzarekin egingo zuela laster.

*(Jařaituko dio)*

YAB. LAD. A. O. M. Cap.

## Prantzisko Doatsua ta Bolonia



RANTZISKO Doatsua ta bere lagunak, beren biotzetan eta egintzetan Kristo Gurutziltzatua eremateko ta itzalditzeko, Jaungoikoak autuak eta deituak izan ziralako, beren jantzi, bizitza ta egintza guzietan gizon gurutziltzatuak izan ziran, eta gurutziltzatuak bezela azaltzen ziran leku guzietan. Eta gizonen txaloak eta gorak artzea baño naiago izaten zuten, Jesukristo'ganako maitetasunagatik apalduak eta bidegabetuak izatea. Oraindik geiago: Jesukristogatik apalduak eta bidegabetuak izatean, asko poztutzen ziran; eta gizonen txaloak eta gorak artzean beřiz, asko atsekabetzen ziran. Eta olaxe ibiltzen ziran erbeste onetan, batetik bestera, bidelarien eta erbestetuen antzera, Kristo Gurutziltzatua baizik beren gañean eramaten etzutela. Eta egiazko mats ondoa dan Kristoren adař bidezkoak bezela, oso emaitsuak eta ugariak ematen zituzten leku guzietan, Jaungoikoaren goramenerako ta gizonen onerako.

Anaidiaren asieran, Prantzisko Doatsuak Bernardo Anaiari deitu ta agindu zion Boloniara joateko, ta Jaungoikoagandik zuan egokitasun bereziaz, antxe lan egiteko, ta Jaungoikoaren goramenerako ta gizonen onerako emaitz onak eta ugariak emateko. Ta Bernardo Anaiak, Prantsisko Doatsua-ren agindu au artzean, Gurutze-irudia egin zuan eta oso pozik jo zuan Bolonia aldera.

Bañan Bernardo Anai au Boloniara eldu zanean, ango mutikoak zoro pařagafitzat artu, ta oso pařagafi erabili zuten, ala jantzitako gizonik lenago ikusi etzutelako. Baña berau beti egon zan oso pozik eta alai Jesukristoganako maitetasunagatik. Eta Jesukristogatik geiago ta geiago apaldua ta bidegabetua izateagatik, efiko plazara joan zan eta antxe lufean jaři zan. Eta orduan, len baño mutiko geiagok eta gañera gizon askok inguratu zuten, eta len baño ere pařagafiago erabili zuten, alde batetik eta bestetik tiraka ta

zirika; bere burukoa auferatzen eta atzeratzen ziotela; lufa, autsa, lokatza ta añaik arpegira botatzen zizkiotela; ta beste era askotako bidegabekeriak ere egiten zizkiotela. Baña Bernardo Anai au beti egoten zan oso pozik eta alai Kristoganako maitetasunagatik. Eta beste egun askotan ere plaza bertara joan zan, eta antxe lufean jañi zan, geiago ta geiago apaldun ta bidegabetua izateagatik.

Baña eraman ona ordea Doatsuaren ezagungaria da-ta, egun batean, Bologia'ko Irakaslea zan lege-gizon jakintsu, aberats, agurgari batek, Berna-



(†) *Doreberia* Maria Azpilkueta'ren jauregia egon zan lekua

do Anaiaren afigafizko apaltasuna ta eraman ona ikusirik, eta ardura aundiaz gogoraturik, bere artean esaten zuan: Gizon au egi-egiz Doats'i aundi bat da. La alako batean, Bernardo Anaiari galdetu zion: ¿Nor zera zu? ta zertara etofi zera onera?

Bernardo Anaiak orduan, ixil-ixik, itzik ere esan gabe, bere eskua kolkoan sartu ta Prantzisko Doatsuaren Araua atera zuan, eta Irakasleari eman zion irakurtzeko. Irakasleak orduan Prantzisko Doatsuaren Araua artu zuan; eta Arau onen ontasuna, jakinturia ta osotasun goien-goienekoa ikustean, afiturik, bere aldameneko lagunai begiratu, ta esan zien: Auxe da egi-egiz orain arte ikusi dedan bizibiderik onena ta osoena: ta gizon au ta beronen lagunak dira lufeko gizonik onenak eta Doatsuenak: eta oso gaiztakeri aundia egiten dute, gizon au ola erabili ta bidegabetzen dutenak. Egi-egiz, guziok agurtu ta goratu bea' genduke gizon au, Jaungoikoaren adiskide aundi bat da ta. Au esan ondorean ordea; bernardo Anaiari begiratu, ta esan zion: Jaungoikoa eroso agurtzeko ta goratzeko leku egoki bat nai za-dezu, nero-nek emango dizut oso pozik, nere gogoaren betiko osasunagatik.

Bernardo Anaiak orduan, oso pozturik, esan zuan: Ene jauna, Jesukristo gure Jaunak gogoratu dizu asmo ori. Ta ofegatik oso pozik artzen det zure eskeintza ori, Jesukristo gure Jaunaren goramenerako.

Irakasleak orduan, oso pozik, Bernardo Anaia bere etxera eraman zuan, ondo-ondo artu zuan, bere eskuz Alkartegi egoki bat eratu zuan eta Bernardo Anairi eman zion. Eta Boloniar Irakasle au gero ere beti izan zan Bernardo Anaiaren, eta Anaidi Doatsu onen ongile aundia ta laguntzaile berezia.

Bernardo Anaiak befiz, bere egintza, ikasbide ta itzaldi afigafiakin, Jaunaren laguntzaz, laister irabazi zituan Bolonia'ren biotzak. Eta Bolonia'fak orduan biotz-biotzez agurtzen eta goratzen zuten Bernardo Anaia, berau ikuste utsa bakafik ere, ta beronen jantzia ikutzea ere, zorion aunditzat artuaz.

Baña Bernardo Anaiak orduan, Bolonia'ren agufak eta gora geigiak bere burua afotu ta biotzeko pakea ta poza kenduko ote zioten bildufez, Boloniatik Prantzisko Doatsuagana iges egin zuan eta Doatsu oni esan zion: Aita, Alkartegi egoki bat eratua dago Bolonia'n, eta biali itzatzu ara Anai batzuk, antxe laungoikoa agurtu ta goratu dezaten. Nik ez nuan an ezer ere irabazten. Oraindik geiago: irabazi baño galdu geiago egiten nuan, ango agur eta gora geiegiakatik.

Prantzisko Doatsuak orduan, Bernardo Anaiak, Jaunaren laguntzaz, Bolonia'n egin zituan egintza aundi ta afigafiaz, oso pozturik, Anai batzuk Bolonia'ra ta beste batzuk befiz Lonbardia'ra ere biali zituan. Eta Anai aukere, Jaunaren laguntzaz, egintza aundiak eta afigafiak egin zituzten Alderdi aietan, eta baita ere Alkartegi befiak artu.

(Loretxoetatik)

AITA ESKORIATZA



Bruselas, Uztaila.—Brabante'ko probintziko aldundi'edo diputazioak Mercier kardenal jaunaren etxean befiz beaf bezela'ko tresnak ipintzeko eskatu ziran 4000 pezetako laguntza ukatu egin zuan: au jakitean lagun on batzuk *La Libre Belgique*'ri dirua biali ta arpide edo suskritzioa idiki da. Kardenal Jaunak eskefak emanaz albistari edo periodikuaren zuzendariari idatzi dio eskefak emanaz ta naiz ta bere etxea Artzobispo batentzat bezin ondo ez egon, beretzako bil-

tzen asi diran dirua beaf bezin ondo zaitzen ez dituzten gefako elbafituai eman naiko liekela, adieraziz.

**Seoul-Korea**.—Emetortzigafen gizaldi edo sigloan sartu ziran katolikoak Korea'n ta gofiak ikusi beaf izan zituzten. 1885 Korea'ko muga afoztei idiki zioten ta ordu arteraño izkutuan zeuden 12.000 katoliko bere Gotzai edo Obispua-kin ta 7 misiolariakin argira atera ziran. 1909'an 42.441 kristau Gotzai bat ta 39 misiolari zeuden. 1911'an 77.000 kristau bi Gotzai ta 46 misiolari zeuden. 1921'e an 90.433 katoliko zeuden.

**Paris, Uztaiġa**.—Foch mariscal jauna berariz Tureoing'era juan da *Sortaldeko eskolentzako Prantziko Alkartasunaren* Buruaren itzaldia entzutera. Onek bere itzaldian esan zuan Sortaldeko eskolai laguntzea iñoiz baño beafagoa zala. Alkartasun onek Sortaldeko 2000 eskolai laguntzen die. Oietara bai katolikoak bai ez-tirenak ere juaten dira. Ola Eskola kristauen Rodas'ko anaien eskoletara 19 katoliko, 73 zismatiko, 35 mahoma'tar ta 30 judu juaten dira. Anai oiek berak Tripoli'n dituzten 326 eskola gazteetatik 144 katoliko dira, 81 mahomatar ta 141 zismatiko. Eskola oietan gure erlijioaren alde lan egiten da.

**Paraguay—Asunción, Garagaġila**.—Bogarin Paraguay guziko Obispo bakafari gure eġiak zof aundia dio Brasil, Uruguai ta Argentina'rekin izandako gefa ondoan elbafitua gelditu zan ta gosea ere ikusi giñun. Bogarin jaunak artzai eskutitz (karta pastoral) bat egin zuan bere mendekoai nekazaritzari laguntzeko esanaz, jendeak Artzaiaren deia entzun ta goseak iges egin zuan, orain befiz jendea jazteko oso gaizki dabil ta bere Artzaiak lenago egiten ziran bezela jantziak oyalak etxean egiteko adierazi die.

**Austria—Insbruk, Uztaiġa**.—Tirol'go gazte katolikuen batzafea egin dute 3000 gazte izan ziran biġera edefak ta 2000 gazte izan ziran prozesio bikaña egin zuten bere katolikotasuna guzien ašean erakutsiaz.

**Londres, Uztaiġa**.—Jaungoikozko Erukiaren Paġle Anglicanoen buru izan zan Aita Penrudoche Eliza Katolikoan sartu da. Lenago Caldey Islan'go Benediktinuak protestanteak ziranean oietan egona zan. Ertilari edo artista aundiaren izena edo pama dauka.

**Bersaġes**.—Ogei gudalburu edo jeneral ta almirante bat beren gudari edo militar jantziakin izan ziran Santa Jenobebako ikastetxeko loreteġian Corpus egunean egindako prozesioan. Jendearen artean baziran ikastetxe artan lenago izandako gudalburu (jenerai) ta ofical asko. Jauna Aita Santuaren Ordekoak eraman zuan.

**Eġoma, Uztaiġa**.—Aita Santuak S. Iñazio'k egin zuan bere Ejerzizioteko liburuarengatik Gogo-Jarduera edo ejerzizio espiritualen ta onen alde lan egiteko ipiñirik dauden alkartasun guzien Zaindari edo Patroi egin du. Amaikari zabaldu dizkiote zeruko ateak santu aundi onen jarduera bikañiak.

**Filadelfia, Uztaiġa**.—Wilson Estados Unidos'etako lendakari edo president zala eġi aundi ofen ordezeko Austria'n izan zan Federiko Courtland Penfield jaunak Washington'go Ikastola Nagusi (Unibersidade) katolikuari azken-naian 80.000 dolar edo duro utzi dizkio. Lenago ere egin zituan lan aundiengatik Aita Santuak Gregorioren Gurutze Aundi eman zion.

**New-York, Garagaġila**.—Eliza Katolikuaren Zabalpena deitzen dan Estados Unidos'etako azkeneko amasei urte ašetan bi miġa baño eleiz geiago egiteari lagundu dio. Onetarako egin dan diru biltzea iya bost miġoi dolafetara iritxi da; ontatik geiena elizak, eskolak ta pafoki etxeak egiten eta eralgi edo gastatu dute.

**Marsela, Uztaila.**—Befiz asi dira Lourdes'ko jofute edo peregrinazioak ba-dira 75 egiteko prestatuak daudenak ta prestatzen ari diranak.

**Berna, Uztaila.**—Orain gutxi dala *Nouvelle Gazette de Zurich*'ek auxe zekafen: 1783'ko Martxua'ren 15 Goethe ospatuak masoi izan ondoan beste masoi bati idatzi zion: «Masoi alkartasunak gizon egoki ta ongiileak izatea besterik ezpadu bilatzen, ezpadu besterik nai, bakoitza berex argi izan diteke». Beraz zergatik izkutuan ibili?

**Rennes, Uztaila.**—Rennes'ko goterki edo diocesis'ko Lourdes'erako azkene-ko jofute edo peregrinazioan Maria Chevel 21 urteko neskatxa gaztea estarteko miñ aundi batetik sendatu da. Lourdes'erako bidean izugarizko oñazeak izan zituen ta artu zuen esne guzia goraka bota zuan. Lourdesen otoiitz biotzetikakoak egin ondoan oñaze bizi bat sumatu zuen. Poliki-poliki oñazea jua zitzaion ta gero jateko gogo aundia etofi. Gero sendagiileak medikuak ikusi ta oso sendatu dala aitortu du ta miñak sendatzen diran bezela ez dala sendatu esan du. Ama Birjiñak sendatu du.

**Aya-Olanda, Uztaila.**—Oraindik egin diran aldun edo diputaduen auteskondeetan (elezioetan) katolikoak indar geiago aflu dute ta aufera ere gobernuan jafaitu edo segituko dute noski.

**India-Kalkuta, Uztaila.**—Changanachery'ko Aita Santuaren Ordezkoari eskefak, laxter eguneroko paper katoliko bat argitaratuko da: Hottayam'ekoa befiz orain daukan aldizkingi edo efebista astero ateratzeko lan egiten ari da. Artzai on oiek argi ikusten dute siñismena zabaltzeko ta sendotzeko paper onak bide egokia dirala.

**Kalkuta.**—Amaf urtetan India ta Zeilan'en 350 katoliko befi egin dira. 1911'an 2.624.000 katoliko ziran, 1920'an 2.974.000 urten iru miñoi. Trichur efian protestanteak gazte-alkartasun bat ipiñi zuten orduan katolikoak beste bat ta azkeneoak protestantearen erlijioaren aldeko lanak ezerezteraño lan egin dute: gazte katolikoak India'tafak ziran.

A. orde O. M. Cap.

## ENTZUN GUZTIOK

Oraindik ba-dira urteko saria ordaindu ez duten batzuek:

Biali zazute len-baitlen **giro postalez** edo «**Kofeoko Sellotan**»

**Aramayona'tafai.**

Aramayona'n aldizkingiaren urte saria ordaindu nai dezutenak biali zazute dirua: Ibabe'taf Felipe Jaunaren etxera—**Ibafa'n.**

ZERUKO ARGIA'k azaltzen ditun *Itzaldiak* argitaratu ditugu ta laxtef bialiko ditugu.

Norpaitek artzen ezpaditu amabost egunen buruko gaztigatu dezaigula bere ta gure onerako.

ZERUKO ARGIA itzaldiakin urtero 5 pta.

» » itzaldiak gabe urtero 4 pta.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.